



agian, ardura, heldu, lotsatu, samurtu, sarri

Hitz batzuen esanahia, hizkeraren
edo erregistroaren arabera



Eroriko haiz, **agian!**

Zer esan nahi du hor **agian**
adizlagunak: 'Eroriko haiz,
beharbada' ala 'Eroriko ahal haiz'





● agian

1. 'Beharbada', 'apika'.

• **Agian** etorriko da, baina **agian** ez.

2. *Ipar*. 'oxala'.

• Gure atxikimendu eta goresmenak guztiei, eta **agian** luzaz!

• *Gure hizkuntza ez da galduko **agian!***

Xalbador, "Herria eta hizkuntza", 1976

• **Agian** luzaz biziko dira elkarrekin.



*Jende(e)n artean bada
anitz arrangura:
jelosia, aharra,
(e)ta gerlak ardura.*

Mañex Etxamendi, 1972

Zer esan nahi du hor *ardura*

hitzak 



● ardura

1. Iz. 'Arreta', 'axola'

- Langile-talde handi baten **ardura** du.

- **Ardura** handiz zaintzen dituzte hezkuntza eta osasuna.

2. Adlag. Ipar. 'maiz', 'askotan'

- **Ardura** du irria ezpainetan.

- Aniaz oroitu eta, gogoan iluntzen zitzaion **ardura**.



Galdegin zion nondik heldu
zen eta nora zihoan.

Zer galdegin zion:

'nondik etorri/iritsi zen'
ala 'nondik zetorren' 



● heldu

1. 'Iritsi', 'ailegatu'.

- Garaiz **heldu zen** ekitaldira.
- Goizeko hamarretan **heldu da**.

2. *Ipar.* eta *Naf.* 'etorri'.

- Norbait **heldu da** [**dator**]
- Ziburu aipatzen delarik, nornahiri gogora **heldu zaio** [**gogora dator**kio] berehala Maurice Ravel.

HELDU DEN astean/urtean...

- Aurten hemen naiz, eta **heldu den urtean** [**datorren urtean**] ez.



Lotsatzen naiz bide hain luzeari lotzeaz.

Zer esan nahi du esaldi horrek:

'Ahalketzen naiz bide hain

luzeari lotzeaz' ala 'Beldurtzen

naiz bide hain luzeari lotzeaz'





● lotsatu

1. 'Ahalketu'.

- Egindakoaz **lotsatu zen**.
- Eskean ibiltzeaz **lotsatzen da**.


2. *Ipar*. 'beldurtu'.

- Euriak ez zuen Ane batere lotsatu, eta etxetik irten zen.
- Lan gogorrak ez gaitu lotsatzen.
- *Osoki lotsatua zen haur gaixoa gauari buruz.*

J.P. Arbelbide, 1895



Ama samurtu zaigu.

Bigundu ote zaigu ama? Ala,
haserretu ote zaigu 



● samurtu

1. 'Bigundu'.

- Bustitzeak **samurtzen du** hareharria.
- Bihotza **samurtu zitzaion** eta negarrez hasi zen.

2. *Ipar*. 'haserretu'.

- Gutxi aski du **samurtzeko**.
- **Samurtua** da egin dizkioten irainengatik.



**Sarri, aroa edertzearekin,
jende franko etorriko da.**

'Maiz' ala 'laster' etorriko da jendea **?**



● sarri

1. 'Maiz', 'askotan', 'frankotan'.

- **Sarri** pentsatu du erretiroa hartzea.

- **Sarri** erabiltzen da honako esaera hau: "Non gogoia, han zangoa".

- Halako adierazpenak **sarri** entzun nizkion.

2. *Ipar*. 'berekala'; 'aurki', 'laster'.

- **Sarri** nauzu hor.

- **Sarri** arte!

- Ahal bezain **sarri** osatuko dute gobernu berria.

- Baionan sartu bezain **sarri** telefonatu nion.

Erabilitako hiztegiak



Hitz batek adiera bat baino gehiago izateak anbiguotasuna sor dezake zenbaitetan.

Oro har, testuinguruak laguntzen du hitz-adierak bereizten.

Bigarren balioa eskuarki ekialdean eta iparraldean hartzen duenez, halako testuinguruak ematen dio bigarren adiera; gainerakoan, lehen adiera da nagusi.

Egungo Euskararen Hiztegia (EEH)

Hasiera: Bilatu

sarrezintasun / © sarriagotu

sarri *1 adlagmaiz, asko aldiz, askotan. ik ardura.*

- Sarri** esan dut eredu hori ez dela gaur egunerako egokia. **Roldo Zuazo**
- Harriy **sarri** maitatu izan zuen iraganean, baina oso bakan maitatu izan zuten bera ordainetan. **Oskar Arana**
- Hori hiru urtetik behin, edo **sarriago** nahiz bakanago, aipaturiko ministroak agindu bezala. **Askoten artean**
- Hegazkinak **sarri** datoz hiria bonbardatzera. **Urtzi Urrutikoetxea**
- Hizkuntza handien jauregietan ere **sarri** ikusten dira horrelako egoerak. **Roldo Zuazo**
- Aseguru-agente onak gauza izan behar du bere burua defendatzeko bezeroekin eztabaida zail bihurtuak sortzen direnean, **sarri** gertatu ohi denez. **Oskar Arana**
- Adituek diotenez, ura **sarri** edan behar da garai honetan, egarririk izan ez arren. **Bernia - Hatian**
- Lujanbio mendizalea da, inguruko mendietan urteetan zehar **sarri** ibili izan dena. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**